



«Taldeko giro ona» izan da gakoa Tolosa 3. Mailara itzultzeko

POZEZ ▶ Bost urteren ondoren maila berreskuratuta, «pozez zorutzen» ageri dira taldekideak

HARRERA ▶ Udalak eta herri osoak harrera beroa egin zien igande iluntzean ▶ 2,3



Jokalariak, entretzaileak eta zuzendaritzako kideak Zubietan igandean, EHU-UPVri 1-2 irabazi ondoren. EKAITZ AGIRRE / IRUTXULOKO HITZA

TOLOSA ▶

Iurreamendi egoitzak kalitate saria jaso du

Adinekoei ematen dizkien zerbitzuak saritu dituzte ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

Iker Karrera, bigarren euskalduna Aizkorri

Guztira 10. izan zen, 4:21:05 ginez ▶ 5

IBARRA ▶

San Inazion obrak inauguratu dituzte ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Bi hitzarmen sinatu dituzte Ernioalde U21eko udalek

Aalborgeko Gutuna eta Iraunkortasun Konpromisoa dira sinatutakoak ▶ 4

Cebanc-Cdea
FORMACIÓN PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA
Berio Pasealekua, 50 - 20.018 Donostia
Tel.: 943 31 69 00 - Faxa: 943 31 64 82

Lanerako prest?

Profesionalak hezituz

<p>OSTALARITZA ETA TURISMOA</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Jatetxea arloa. ■ Sukaldaritza. ■ Goozognitza eta okingintza. ■ Jaietxea eta tabernako zerbitzuak. ■ Sukalde-laguntzailea, I. maila. ■ Ostalua arloa. ■ Bidaiar agentziak. ■ Turismo-informazio eta merkataritza. 	<p>INFORMATIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Informatika-sistemen administrazioa (A eta D). ■ Informatika-aplikazioen garapena (A eta D). ■ Sistema informatikoen ustiaketa.
<p>MERKATARITZA ETA MARKETINA</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Nazioarteko merkataritza. ■ Merkataritza-kudeaketa eta marketina. ■ Merkataritza. 	<p>ADMINISTRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Administrazioa eta finantzak (A eta D). ■ Administrazio-kudeaketa. ■ Idazkaritza. ■ Bulego-laguntzailea, I. maila.

www.cebank.com

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
ATEAK ZABALIK. Ekainaren 1an. Orduak: 12:00tan eta 18:00tan.
Aurreinskripzioak: ekainaren 1tik 8ra.

TOLOSA 3. MAILAN ▶

J.M. LULUAGA
ENTRENATZAILEA

«Denboraldi amaierara sasoiko heltzeak baino garrantzi handiagoa zuen burua argi izateak, eta lortu dugu»

KEPA MENDIZABAL
ENTRENATZAILEA

«Buruari genuen Hirugarren Mailara igo egingo ginela. Jokalarien portaera zoragarria izan da; dena eman dute»



Aiert Prados. INIGO ASENSIO

AIERT PRADOS
KAPITAINA

«Pozez zorutzen gaude. Lorpen honen oinarria aldageletako giroan dago; lagun talde bat gara, eta nabaritu da»

ANJEL APEZETXEA
KAPITAINA

«Bost urte horren bila, eta azkenean lortu dugu. Nik bezalako beteranok gehiago baloratzen dugu hau, berezia da»

Bost urteren ostean, berriro

Gorengoen Mailari agur esan, eta Hirugarren Mailako taldea da orain Tolosa; haien arteko giro ona izan da igoeraren gara: «Entrenatzaileak mantendu egiten du, baina sortu jokalariek egiten dute»

LEIRE MONTES
IRATXE ETXEBESTE

Bost urteren ostean, berriz ere lortu du Tolosa CF-k Hirugarren Mailan aritzea. Izan ere, igandean UPV-EHUri 2-1 irabaztea eta igoera, biak eskuratu zituzten Zubietan Luluagaren eta Mendizabalen mutilek. Mailaz igotzeko nahikoa zuten berdinketa, baina partidua irabaztera aterako zirela iragarria zuten lehendik, eta halaxe egin zuten. Handik aurrerakoak festa giroan ospatu zituzten urdinek: jokalariek, entrenatzaileek eta zuzendaritzako kideek, zaletuen laguntzarekin.

«Buruari genuen igo egingo ginela. Jokalarien portaera zoragarria izan da; dena eman dute», esanez egin diote entrenatzaileek Hirtzari igandekoaren laburpena. Tentsio handiko partidua izan zen, haien hitzetan, Zubietakoa. Are gehiago 24. minutuan banako berdinketa heldu zenean. Hala ere, «beldurrez baino, zuhurtziaz» aritu zirela azaldu dute Luluagak eta Mendizabalek. «Denboraldi gogorra izan da hau



Tolosa CF-k jokalariek, herenegun, Zubietan, EHU-UPVren aurkako lehen gola ospatzen. ASIER ETXANIZ

orohar, presio ikaragarria izan dugulako hasieratik. Amaiera sasoiko heltzea baino garrantzia handiagoa zuen burua argi izateak, eta lortu dugu».

Lana gogotik egin dutela bai, baina une askotan zortea aldeko izan dutela aitortu dute, bestalde. Mailaz igotzea ez baita partidua bakarrean irabazten; denboraldi oso ahalegina egiten dute gora Tolosakoek, eta, horrexegatik, «merezitako saria» jaso dutela esan dute taldekideek.

Aurreko astean Berazubini lortu ezin izan zutena Zubietan

zuten jokoan urdinek, eta norgehiagoka jarraitzekotan mila eta bostehun lagun inguru hurbildu ziren hara. Haien sortutako giroari «zoragarri» iritzi diote entrenatzaileek. Neurketa hasi aurretik, berotzeari ekin ziotenetik, «babes handia» esaltzeko, «Zirraragarria izan zen, emozio handikoa».

Bada pozik dira Luluaga eta Mendizabal Tolosa CFko zaletuekin, eta are gehiago jokalariek egindako lanarekin eta erakutsitako jarrekin: «Oso batuta egon den taldea

izan da aurtengoa, eta garrantzitsuen aldageletako giro ezin hobea izan da. Azken babilduen erakusten da hori jokaterakoan ere». Horren adibide da, haien esanetan, azken bi partiduetan gertatutakoa: min hartuta, zigortuta edota izendatuta ez zeuden jokalariek ere besteekin batera izan dira aldageletan taldea animatzeko.

Giro apart hori entrenatzailearen egitekoa ote den galdererakoan umil-umil erantzun du Jose Manuel Luluagak: «Entrenatzaileak mantendu egiten

du giroa; sortu jokalariek egiten dute».


Jokalariek egindakoa garrantzitsua bada ere, entrenatzaileena ez da gutxiagorako izan. Luluaga eta Mendizabal aritu dira lan saioak prestatzen, baina «gure ondoan izan dugu Luis Mendigain: lagun-tzaile, psikologo...».

Guztiak ere, pozarren

Herenegungo biharamonaren ondorioak Tolosako jokalariek, entrenatzaileen eta zuzendaritzako kideen ahotsean nabaritu ziren atzokoan. Izan ere, bezperako parrandak hurrengo egunera arte iraun zuen askorentzat. Tolosa CFko kapitain Anjel Apezteak telefonoa hartu orduko esan zion Hirtzari «ahotsa ez dut oso ondo», baina kazetarien galderei erantzuten ahalegindu zen, pozarren: «Bost urte generamatzan igoeraren bila, eta azkenean lortu dugu. Ni bezalako beteranok gehiago baloratzen dugu igoera; berezia da guretzat». Lorpena aurreko astean Berazubini ospatu ezina («lastima») izan zela, baina, hala ere, Zubietako giroaz gozatu ahal izan zutela esan du atezainak: «Jokalariek guztiak inguruak gara, eta talde giro eta lagun giro ona dugu; horrek asko laguntzen du».

Gauza bera zioen Tolosako beste kapitainak, Aiert Prados, ere. «Pozez zorutzen gaude. Lorpen honen oinarria aldageletako giroan dago; lagun talde bat gara, eta nabaritu egin da hori denboraldi osoan». Denboraldi berrian ez da Prados Tolosarekin ariko, futboleko jokatzeari utziko diolako. «Kideengatik poztan» dela dio, hala ere: «Ez dut Hirugarren Mailan jardungo, baina lehen aritutakoa naiz, eta, beraz, badakit zer den hori».

Orain artekoak lortuta, zailena «mailari eustea» izango dela uste du kapitainak. «Lehen-



Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak 2005eko maiatzaren 16an egindako bilera honako proiektu honi hasierako onepena eman zion zenbait baldintzarekin:

E.U. 2ko E.Z.5 "Beotibar kalearen luzapena" eremuak konpentsazio proiektua

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HAMABOST EGUN (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamonetik kontatzen hasita) jendearean jarrita egongo da.

Irakarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrita, Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedientea, inork eztertu nahi badu, Udaletxeko Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B) egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosa, 2005eko maiatzaren 25ean.
ALKATEA

hilberriak ▶

eskela hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

+

Juana Elorza Iraola

(JOSE BARRIOLAREN ALARGUNA)



Igandea, 29an hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere seme-alabak: Jose Manuel eta Martin eta Mari Ercilla; biloba: Martin; anai-arrebak: Sebastian (+) eta Benantzi Ibarbia (+), Jesus (+), Maria Aldalur (+) eta Juanita Aizpirtate; Manoli Oiarzabal (Patxi Elorzaren alarguna), Agustin eta Pilar Garmendia, Iñaki eta Melxora Aizpuru, Nieves eta Valentín Galdos, Arantxa Mayorra (Jose Mari Elorzaren alarguna) eta Milagros eta Felix Etxeberria; laguna: Mariari Lopez; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SAN FRANTZISKO parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

heltzea ▶ Nafarroa etorbidea 8, 3. oharra ▶ gorputz beila Tolosaldeko Tanatorioan dago. Gorputz laguntza bere familiaren artean egingo da gaur astearte, goizeko 10etan
TOLOSA, 2005eko maiatzaren 31



Anjel Apeztebea. INIGO ASENSIO

JON ALDAZABAL
TOLOSA CF-KO LEHENDAKARIA

«Horrelako unetan ikusten da argi zer suposatzen duen Tolosa bezalako klub batek gure herriarentzat»

ANDONI IMAZ
KIROL ZINEGOTZIA

«Tolosaren lekua beti 3. Maila izan da. Herriko jendearekin, goian egon dira beti, eta baloratu egin behar dugu hori»



Andoni Imaz. IRATXE ETXEBESTE

GIZARTEA ▶

Trafiko neurri bereziak ezarri dituzte biharko eta etzirako

Etzi herrian bukatuko da Euskal Bizikletako 2. etapa; kanpoaldeko irteerak erabil daitezke

I. ETXEBESTE

Sopelan hasi, eta Tolosan bukatuko da Euskal Bizikletako 2. etapa ostegunean. Hori dela eta herrian aldaketa batzuk izango direla iragarri du Udaltzaingoa, bai herrian sartzeko, bai aparkatzeko. Bihar, adibidez, ezin izango da aparkatu 19:00etan hasi eta hurrengo eguneko 19:00ak arte San Frantzisko pasealekuko 2. zatian —Leidor zinemaren aurrean— eta San Inazio kalean, podium-a, telebista tresneria eta antolakuntzako beste instalazio batzuk jarri behar dituztelako.

Etzi, bestalde, libre geratu behar dute 08:00etatik aurrera San Frantzisko pasealekuak —Pedro de Tolosaraino— eta Geltoki kaleak eta plazak, bertan aparkatu behar baitute talde eta etxe komertzialen autoek. Era berean, 14:00etatik aurrera ezin izango da aparkatu Gorosabel kalean —Belaterainoko luzapena barne— eta Batxiller Zaldibia kaleko eskubialdean —Gernikako Arbolako loraegietatik Geltokiraino—.

Segurtasuna bermatzeko

Udaltzainek esan dutenez, etzi 09:00etatik aurrera itxi egingo dute bidea eta trafikoa desbideratuko dute San Frantzisko pasealekuaren inguruan, helmugako eta ikuslearen segurtasunerako azpiegitura jartzeko. Gorosabeletik erdialdera ezin izango da pasatu 14:00etatik aurrera; larrialdi zerbitzuek, garrio publikoek, garajeetako jabeek eta merkantzia banatzaileek, salbu. 16:00etatik aurrera, berriz, itxi egingo dira Pablo Gorosabel eta San Frantzisko pasealekura joateko bide guztiak lasterketa amaitsu arte.

«Segurtasuna bermatze aldera, eta Euskal Bizikleta inolako arazorik gabe Tolosara iritsi dadin, erdialdera sartu nahi duten gidari guztiak autobiatu, Usabaleko eta Benta Haundiko irteerak erabiltzea gomendatzen diegu», adierazi dute udaltzainek.



Tolosako 1.400 bat zaletu izan ziren Zubietan. ASIER ETXANIZ



Tolosako jokalaria, udaletxeko balkoian, herritarren aurrean. J. SAIZAR

Herriak, erantzun

Zubietara joan gabe, jende askok jarraitu zuten futbol taldearen partidua Tolosatik

JOXEMI SAIZAR

Zubietara joan gabe ere, jende askok jarraitu zuten futbol taldearen partidua Tolosatik. Ehunka lagun joan ziren Tolosatik Zubietara eta ordu berean ehunka pertsona bildu zen Korpuseko meza nagusian eta prozesioan. Gurasoak Lehen Jaunartzea aurten egin duten seme-alabean irudia argazki eta bideo kamara digitalez jasotzen ahalagintzen ziren bitartean, jende askok telefono mugikorren deie arreta handiagoa jartzen zien. Partiduaren lehen zatia banako berdinketarekin bukatu zen eta meza nagusiaren irteeran, prozesioa hasi aurretik zabaldu zen emaitzaren berri jendartean. Mezetan eta prozesioan Santa Mariako musika kaperak eta Musika Bandak interpretatu zituzten Mokoroaren moteteak eta zortziko lagungarri izan zen futbolarietako garaipena lortzeko.

Prozesioa Korreo kaletik zihola, tabernari ezagun batek adierazi zion keinuka alkateari 1-2 *gindoazela*. Zinegotzi batzuk huts egin zuten Zubietara joan zirelako. Prozesioa bigarren geldialdira iritsi zenerako, Berdura plazan, partiduaren amaieraren berri iritsi zen telefono mugikorren bidez, futbol zelaian zeuden lagunak abisatuta. Prozesioa parrokian amai-

tu eta Musika Bandak kalejira inprobisatu zuten Tolosa futbol taldeari eskainitako *la zarrak* pieza interpretatuz. Bezperako kontzertuan ere, propina gisa, interpretatu zuten, futbolarietako animoak emateko. Berehala iritsi ziren Zubietara joandakoak bere autoen eta autobusaren klaxonak jotzen, berria herri osora zabalduz.

Usabal sagardotegian bazkaldu ondoren, arratsaldeko zortzietan Udalak harrera egin zien jokalariei, entrenatzaileei eta zuzendaritzako kideei eta plaza Zaharra urdinez jantzi zen: jokalariek kamiseta urdin berezia zeramaten Txapeldunak hitzarekin eta bandera ugari ikus zitezkeen bildu zen jendetzaren artean. Udaletxeko balkoia dardarka jarri zuten jokalariek bere jauzi eta oiñuekin xanpaina botatzen zuten bitartean. Zaleuen laguntza eskertu zuten Aiert Prados kapitainak balkoitik. Txaranga inprobisatuak ere asko lagundu zuten udaletxeko arkupeetan eta, ondoren, kalejiran, Alde Zaharreko tabernetan giroa jartzen. Taberna askotan ere *la zarrak* jarri zuten —bi bertsioetan, Bandarena eta Samaniego ikasleena—. *A por ellos, You're the champions...* eta horrelakoekin batera. Festa giroa nagusitu zen herri osoan, Tolosaren igoera ospatzeko.

dabiziko urtea izaten da okerrera, baina oraindik ospakizunetan gaude, eta itxaropenez begiratzen diogu datorren urteari».

Tolosa CFko presidente Jon Aldazabalen iritziz, «horrelako uneetan ikusten da argi zer suposatzen duen Tolosa bezalako klub batek gure herriarentzat». Zubietara joandako 1.400 lagunengatik babesa eskertuz, haiek jokalariei emandako bultzada «izugarria» izan zela dio: «Etxean jokatzeko gurela ziriudien».

Joan den asteburuan Berazubini garaipena ospatzerik izan ez, eta Zubietara joan zen igandean futbolearen eskarmen handia duen Tolosako Kirol zinegotzi Andoni Imaz. Denbo-

raldi osoan goiko postuetan egon, eta «zoritarrekoa» izango zen igoera ezin ospatzea. Horixe iritzi zion Imazek; alegia, «merezitako saria» jaso dutela: «Tolosaren lekua beti 3. Maila izan da. *Lulu*-k eta bere taldeak egindako lan izugarria goraiatzeko modukoa da; herriko jendearekin lan eginda, goian egon dira beti, eta baloratu egin behar dugu hori».

Ospakizunekin hasi besterik egin ez badira ere, gaur «izerdia ateratzeko lan saioa» izango dute Tolosakoek Berazubini. Ondoren jarraituko dute lortutakoak ospatzen, lagunarteko afari «dezenteko» dituztelako. Entrenamenduaren ostean hartuko dituzte «merezitako» oporrak, 3. Mailara itzuli arte.

UPV-EHU ▶ 1

TOLOSA CF ▶ 2

UPV-EHU. Irazustabarrena, Martinez, Garcia, Aranbarri (Etxeberria, 67m.), Ugartetxea, Borda, Gomez (Giglio, 85m.), Zubillaga, De Miguel (Marroquin, 86m.), Zurutuza eta Txoperena. **Tolosa CF.** Apeztebea, Gorka (Lacalle, 52m.), Unai, Ion, Aimar, Romero, Orue, Prados (Aierbe, 68m.), Lasa (Blanco, 79m.), Elola (Ekaitz, 60m.) eta Regillaga (Haritz, 84m.). **Golak.** 0-1: Gorkak (18m.); 1-1: Zubillagak (24m.); 1-2: Aierbek (77m.). Txartelak: gorria Zurutzari (42m.); horiak: UPV-EHUko Garciari eta Gomez eta Tolosako Romerori eta Orueri. **Arbitroak.** Etxarri I.a; marrazainak: Medina eta Gallego. **Bestelakoak.** Lepo bete zen Zubietako Z-7 zelaia. Guztira, 1.400 bat ikusle izan ziren, eta horietako gehienak tolosarrak. Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente Juan Luis Larreak eman zizkien garaikurrak irabazteko eta azpitxapelunduko.

AGENDA 21 ▶

Bi hitzarmen sinatu dituzte Ernioalde U21eko udalek

Aalborgeko Gutuna eta Iraunkortasunerako Konpromisoa dira sinatutakoak

IMANOL GARCIA

Ernioaldeko Udaltalde 21 osatzen duten zazpi udaleteko (Aduna, Asteasu, Anoeta, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil) ordezkariak ingurumenari lotutako bi hitzarmen sinatu zituzten atzo Ibarra udaletean, egun Tolosaldeko Mankomunitateko egoitza dena. Aalborgeko Gutuna eta Euskal Herriko Iraunkortasunerako Konpromisoa izan ziren bi hitzarmen horiek.

Tokiko Agenda 21a aurrera eramateko mundu guztiko udalak inplikatu dira. Prozesu horretan gidaritzatza Europak izan du eta, bereziki, 1994an Aalborgen (Danimarkan) Europako Hiri Jasangarrien Lehen Konferentzia ospatu zenean. Konferentzi honen ondoren, Aalborgeko Gutuna izeneko dokumentu bat sortzen da. Dokumentu hau sinatzen duen udalak herrian iraunkortasunaren alde lan egiteko konpromezua hartzen du.

Joan zen urteko urriaren 18an Ernioaldeko Udaltalde 21a eratzeko eta garatzeko hitzarmena sinatu zuten zazpi udalek, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Tolosaldeko Mankomunitateak. Udala hauek herriko eta herritarren bizi kalitatea bermatzen jarraitzeko, herrian giza, ekonomia eta ingurumenaren artean oreka bat lortzea beharrezkoa dela ikusten dute. Ingurumena eta iraunkortasunaren auziei irtenbide orokorra eman nahi bazaie, tokian tokiko ekimenak martxan jarri behar dira, bizi-raupena eta ingurumenarekiko errespetua lortzeko, zuzentasuna eta justizia sozialari eusteko eta azkenik ekonomia-oren oreka lortzeko.



Sinaketan parte hartu zuten sei udaleteko alkateak —Hernialden egun ez dago udalbatzarik—, ezkerretik hasita: Zizurkilgo Marian Lazkano, Asteasukoko Iñaki Amenabar, Irurako Marimi Ugalde, Tolosaldeko Mankomunitateko lehendakari Pello Aseginolaza, Anoetako Fidel Azpiroz, Villabonako Bakarxoa Tejeria eta Adunako Arantxa Aburuza. I. GARCIA

Horregatik iraunkortasunaren aldeko apustua egin dute Tokiko Agenda 21 prozesua taldean abian jarritz. Udaltalde, bere izena dioen bezala, hainbat udalerrik osatzen duten lan-taldea da eta Tokiko Agenda 21 ezartzea du helburu. Horrela, udalek talde lanaren abantailak aprobetxatzen dituzte, elkarren artean Tokiko Agenda 21 prozesuari buruzko informazioa eta esperientziak elkartraldatuz.

Tokiko Agenda 21 udal-agingarrietan herrian iraunkortasuna lortzeko sustatu eta garatzen duten Ekintza Plana da, 21 mendearen sortu eta jarraitu beharrekiko plana. Hortik bere izena, Tokiko (udalerrikoa delako), Agenda (iraunkortasunaren alde gauzatu beharrekiko plana delako) eta 21, (21 mende delako).

Informazio gunea

Bestalde, Ernioalde Udaltalde 21eko informazio gunea sortuko da ekainetik aurrera. Zerbitzu honen bitartez herritarrek eta giza, ekonomi eta ingurumen eragileek herriari buruz daukaten iritzia azaldu eta Tokiko Agenda 21 prozesuari buruzko informazioa, galderak eta iradokizunak azaltzeko aukera izango dute. Gurearen telefono zenbakia 943 69 25 36 izango da.

Guzti horrekin batera, herritarrek parte hartzeko Foroak antolatuko dira aipatu herri guztietan. Foro hauetan herriko diagnostikoan eta ekintza planean parte hartzeko aukera izango dute, beren iritziaz azalduz.

Prozesu hau hobekuntza jarraiko prozesu bat denez, de-

nen parte-hartzea funtsezkoa izango dela azpimarratzen dute Udaltaldek. Beraz, hementik aurrera Tokiko Agenda 21en berri izango da parte-hartzeko aukera izateko, «herriaren etorkizuna guztion ardura baita», diote.

Aste berdea

Bestalde, ekainaren 5ean Nazioarteko Ingurumen eguna dela eta Aste Berdea egitaraua antolatuko da eta honen baitan Ernioaldeko Udaltaldeak haur-errentzako festa prestatu du Villabonan, Gurea antzoki ondoan. 11:00etan hasiko da egitaraua eta bertan Borbor antzerki taldearen emanaldia izango da. Ondoren, 12:00etatik aurrera jolasak eta tailerrak, musika eta freskagarriekin.

IRURA ▶

Goiza Pasa udalekuetarako izena emateko aukera

Uztailaren 4tik 29ra izango dira eta 2tik 12 urte bitarteko haurrak joan daitezke

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak Goiza Pasa udaleku irekiak antolatu ditu uztailaren 4tik 29ra. Aurten 2tik 12 urte arteko haurrak joan daitezke, hau da Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak. Izena emateko epea ekainaren 17ra arte da, goizez udaletean, arratsaldean liburutegian.

Bestalde, Irurako Udalak begiraleak behar ditu Goiza Pasa udaleku horietarako. Horrela nahi duenak izena eman beharko du udaleteko kultura bulegoan (15:00ak arte) edo liburutegian (17:00etatik 19:00etara), kurrikuluma aurkeztuz, ekainaren 10a baino lehenago. Ezinbestekotzat hartuko da euskaraz jakitea eta gainera ondorengo baldintzak betetzen dituztenek lehenasuna izango dute: Irurakoa izatea edo Irurako haurrak ezagutzea, adin nagusikoa izatea, astialdiko begirale titulua izatea, kirolerako, eskulane-tarako eta haur eta gaztetxoak zaintzeko dohaiak izatea.

Aukeraturtakoak ekainaren 27an hasiko dira programa prestatzen eta egunero 3 ordu eta erdiz ariko dira uztailaren 29a arte (irteeretako egunetan ordutegia luzatu daiteke).

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Zer iruditzen zaizu lantokietan erretzea debekatzea?
Orain arteko emaitzak:
Gaizki (%65); ondo (%31); berdin zait (%5).



Erretzeari utzi nahi al diozu?



M. Mar del Castillo
Tabakismoan aditua
Tel.: 943 69 70 00

TOLOSAKO INMAKULADA
IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza
- Farmazia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Irudiak • Osasun Dokumentazioa
- Giza Integrazioa

A, B eta D ereduak
AURREMATRIKULA: Ekainak 8 arte.
Tfnoa: 943 67 36 29 www.inmakuladatolosa.com

IKAZTEGIETA ▶

Festa Batzordearen bilera gaur

Ikaztegietakoko Festa Batzordeak bigarren bilera egingo du gaur, lehenengoa aurreko astean egin zuelarik. Hitzo-dua 20:00etan da, udal liburutegian, aurtengo jaien prestaketak egiteko. Deia parte hartu nahi duten herritar guztiei zabaldu die Udalak.

BELAUNTZA ▶

Bihar KZguneak mintegia eskainiko du

Bihar 15:00etatik 17:00etara Belauntzako KZgunean Outlook Express-a erabiltzen ikasteko mintegia eskainiko dute; mezua nola idatzi, agiritegiak erantsi eta zuzenbide libretan kontaktuak gehitzen irakatsiko dute bertan. Halaber KZguneko tutorearen bisita izango dute 15:00etatik 19:00etara bitartean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Kalitatearen saria Iurramendirentzat

Zaharrei ostalaritza zerbitzuak eta zerbitzu soziosanitarioak emateagatik jaso du ISO 9001:2000 saria egoitzak



Ezker eskuin: Madrazo, Bildarratz eta Hernandez. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Tolosako Iurramendi egoitzak «zaharrei ostalaritza zerbitzuak eta zerbitzu soziosanitarioak emateagatik», ISO 9001:2000 kalitatearen gestio sistemaren ziurtagiria jaso du. Ekitaldian Tolosako alkatea Jokin Bildarratz, DNV enpresako ordezkari Julio Hernandez eta Aldundiako ordezkari Jose Luis Madrazo izan ziren, Iurramendiko zuzendari Elena Ba-

sagoiti, zinegotziak, proiektuan parte hartu duten bost udal, egoitzako ordezkari eta egoitzako langileekin batera.

Guztiak hartu zuten hitza eta denek ere «egoitzako langileen lana» azpimarratu nahi izan zuten, bai eta proiektua abian jarri dutenen lana ere. Elena Basagoitik, halaber, «aldundiari, Tolosako Udalari eta proiektuan parte hartu duten guztiei» eskerrak luzatu nahi izan zituen. Iurramendi Tolosan ezarri zenetik 85 urte igaro dira eta orduztik izan duen garapenari aipamen berezia eskaini zion Jose Luis Madrazok. «Aldundiak gizarte politikan inbertituriko diru kopuru guztia pertsonetik harremanaren kalitatea hobetu helburuz egin du beti», esan zuen Madrazok.

Behin ziurtagiria Hernandezen eskuetatik jasota, bisita egin zuten instalakuntzetan barrena eta *lunch*-a eskaini zitzaizkien bertaratu guztiei.

ALEGIA ▶ KIROLA



Txikienak txirrinduan ibili ziren I. Kirol Astea

Noelia Lataburu ▶ Asteburuan itxi zen Alegiako I. Kirol Astea Mendi Asanbladak antolatutako mendi irteerarekin. Larunbatean, berriz, txikien txanda izan zen, herriko plazan eginiko ginkanan. Txirrindu probarekin hasi zuten goiza —argazkian, gazteei dortsalak banatzen—. Ondoren merezitako hamaikaketa-koa izan zuten, galdutako indarrak berreskuratzeko. I. TERRADILLOS

KIROLA ▶

Karrera, hamargarren Aizkorri mendi maratoian

Amezketarra euskaldunen artean bigarren sailkatu zen 4:21:05eko denborarekin

N. LATABURU

IV. Zegama Aizkorri mendi maratoia izan zen herenegun eta eskualdeko ordezkariak fin aritu ziren. Iker Karrera amezketarrak hamargarren postua eskuratu zuen sailkapen nagusian eta bigarrena euskaldunen artean, 4:21:05eko denborarekin. Amezketako Jose Manuel Oterminek 22.

postua lortu zuen 4:39:15eko denboraz, Pello Izagirre 30.ena 4:37:01eko denborarekin. Hauekin batera, Luis Ezeizabarrena tolosarra (5:02:53), Luis Urruzola tolosarra (5:05:42), eta Jokin Txapartegi asteasuarra (5:09:27) aritu ziren, besteak beste. Karrera «oso pozik» azaldu da emaitzarekin eta esan duenez, «ez nuen 4:30etik jaistea espero».

Barandiaran Lizeoa
R. Mendiburu eskola
Aurrematrikula: sarbide zuzena Ekainak 1-8

Goi mailako HEZIKETA ZIKLOAK

- Diseinu Grafikoa.
- Ilustrazioa.
- Publizitate Grafika.
- Argitalpen Diseinu eta Ekolozpena.
- Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena

Ekainean IKASLEEN ERAKUSKETA

Manuel Lardizabal, 26 - 20.018 Donostia
tel: 943-213355 barandi02@ikasola.net

Loatzo Matrikulazioa
Musika Eskola
05-06 IKASTURTEA

Gaur bihar eta atzo, musikaren bidean LOATZO

Epea: maiatzak 30-ekainak 3
Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondon	

ESKAINITZA ZABALA:
musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619

IBARRA ▶

Ikastolaren Eguneko bazkari txartelak salgai

Uzturpe ikastolak ohiko den bezala Ikastolaren Eguna ospatuko du ekainaren 4an. Egun osoko egitaraua, triatloiak, haur jolasak, toka txapelketak, pilota partidak, bazkariak, musika eskolako saioak, Alurr-en emanaldiak eta hockey partidak osatuko dute. Bazkarirako txartelak salgai daude Uzturpe Ikastolan eta Zubiaurre tabernan, eta bihar izango da eskuratzeko azken eguna.

TXARAMA ▶

Herri jaietako afarian izen-ematea

Ekainaren 4an izango dira Txaraman herri jaiak. Hainbat ekitaldi izango dira, eta gauean herri afaria egingo da. Urdaiazpikoa, bakailaoz beteriko piperrak, arkume errea entsaladarekin, jogurt moussea, kafea, kopa eta purua izango da menua eta 20 euro ordainduko dira izen emateko. Horretarako 943 67 46 14 (Gardotza) zenbakira deitu beharko da.

IBARRALDEA ▶

Zumaiako talasoterapiara irteera

Ibarrako, Berrobiko eta Berastegiko Gaztainondo jubilatuen elkarteentzako Zumaiako Zelai talasoterapiara irteera antolatuko dute. Ekainaren 9an izango da irteera, eta bertan bainua hartu eta bazkaltzeko aukera izango da. Autobusa jarriko dute hiru herrietatik. Irteera honetara joatera animatzen denal lehen bait lehen eman beharko izena aipaturiko hiru elkarteren batetan, horretarako 30 euro ordainduaz.

IBARRA ▶ JAIK

Obrak inauguratuz agurtu dituzte jaiak

Antolatzaileak gustura daude aurtengo jaien emaitzekin



Chelo Romeo Ibarrako alkatea San Inazio auzoaren inaugurazioko unea. I.TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Igandean eman zieten amaiera Ibarrako San Inazio auzoko udaberriko jaiak. Eta era berezian eman ere, igandean besteak beste San Inazio auzo berri-ri inauguratu baitzen.

Goizean goizetik hasi zen festa herenegun; txistulariekin diana izan zen lehendabizi eta ondoren toka eta bola txapelketa egin zuten. Ordu berean hasi ziren baita ere, xake txapelketarekin. Kirolekin jarraituz, pilotak ere bere lekua izan zuten, kadete eta gazteek jokatu baitzituzten partidak. Eta eguerdi partean sukaldaritzaren txanda izan zen tortila txapelketa antolatuko baitzuten.

Eguerdian, hain zuzen, izan zen San Inazio auzoaren inaugurazio ofiziala egin zuten unea. Dantzarien eta txistulariaren saioaren ondoren Chelo Romeo Ibarrako alkateak hartu zuen zinta moztearen ardua. Jende asko gerturatu zen



Dantzarien eta txistularien saioaren ondoren moztu zuten zinta. i. t.

ekitaldia ikustera. Pintxoak dastaketara joan ziren han bildutakoak inaugurazioa amaitu eta gero. Txarangak, trikitilariak eta bertsulariek alaituriko herri bazkariak gozatu zuten ondoren eta jaiak amaiera arratsaldean eman zieten petardo sortarekin.

Antolatzaileek oso gustura daudela azaldu dute. «guztia oso ondo irten baita eta jende asko izan baita hiru egunetan». Igandeko herri bazkaria azpimarratu nahi izan dute, oso giro polita izan baitzen, eta era berean lagundu duten guztiak eskertu nahi izan dituzte.

ASTEBURUKO EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Nesken kopa.

Tinta Villabona-Zestoa 4-2

FUTBOLA

Gorengo maila.

EHU/UPV-Tolosa 1-2

Saikapena ▶

1. Tolosa	83
2. EHU/UPV	78
3. Zarautz	67
4. Ordizia	66
5. Real Union B	65
6. Trintberpe	51
7. Pasajes	51
8. Mutriku	50
9. Arrasate	50
10. Zestoa	49
11. Touring	48
12. Aloña Mendi	48
13. Aretxabaleta	47
14. Anaitasuna	47
15. Hondarribia	45
16. Orioko	43
17. Beti Gazte	42
18. Urola	42
19. Bergara	39
20. Oiarzun	24

Jubenilak 1. Maila.

Dunboa-Eguzki B.C.D.-Inburre 1-2

Union Txiki B Touring-Villabona K.E. 5-4

FUTBOL 7

Lehen maila.

Lanbro-Dickens-Zhurko 8-0

Ibarrako G. A.-Disko bar Egur 0-3

Bar Shanti Kirolak-R.Izkiña-Pasaia 5-1

PILOTA

HITZA txapelketa.

Alebinak.

Zabala/Ibarguren-Ansa/Aburuza 11-16

Urruzola/Oruna-Maiza/Manterola 3-16

Urdangarin/Iratorza-

Eizagirre/Uranga 16-6

Salbarredi/Arnalde-

Argote/Zinkunegi 16-12

Benjaminak.

Galarra/Otaegi-Arandia/Zabala 16-12

Otaegi/Saralegi-Amiano/Mujika 16-6

Arbelaitz/Arruti-Sueskun/Gorostidi 16-1

Arrospe/Nazabal-

Barandiaran/Sarriegi 5-16

Mikel Arena/Bidegain-Arruti/Unzalu 16-13

Kadeteak.

Agirrezabala-Vazquez 18-9

Goikobea-Yeregi 5-18

Esnaola-Ropon 9-18

Sarasola-Ladron de Gebara 18-9

Arribat-Sagastibelza 12-18

Infantilak

Intsausti/Odriozola-Elola/Galarra 9-18

Arrieta/Garmendia-Labaka/Otaegi 10-18

Urretabizkaia/Urteaga-

Arrieta/Aizpitarte 13-18

Jauregi/Maiza-Gaztañaga/Aizpurua 18-16

Etorkezuekoak.

Onsalo/Inureta-Portu/Orena 22-4

Etxeberria/Kanbo-Loiarte/Herrarte 20-22

Renobales/Huarte-Beobide/Esnaola 22-20

Agirrezabala/Resano-

Armandariz/Astiz 19-22

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK
ETXESAGASTI

Andoain. Berrikuntza behar duen 3 logelako etxebizitza salgai.

Igogailuarekin. Kokapen ona.

Etxesagasti. 943 696 856.

Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezin hobea. Lur saila, garajea eta trasteleku. Etxesagasti 943 69 68 56.

Ibarra. Jangela-egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela dituen etxebizitza altua eta polita. 3 logela

egiteko aukera. Garajea eta igogailua. Etxesagasti. 943 696 856.

Irura. Etxebizitza erdiberri ederra salgai. 3 logela eta 2 bainugela.

Ezin hobea. Garajea eta trasteleku. 49.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Irura. Lur sail hesitua duen borda salgai. Atsedenerako oso egokia.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Apartamentu polita gela

batekin eta terraza handiarekin.

31.900.000 pezeta. Etxesagasti.

943 696 856.

Zizurkil. 95 m²-ko etxebizitza ederra salgai. 3 logela. Dena kanpoaldera.

Balkoiekin. Egoera onean.

Etxesagasti. 943 696 856.

Villabona. 72 m². Egongela,

sukaldea, 2 logela eta bainugela.

Eraberritua. Trasteleku handia.

Etxesagasti. 943 696 856.

Villabona. Erabat berrituriko 3

logelako etxebizitza ederra salgai.

Kanpoaldera. Trasteleku eta

garajearekin. Etxesagasti.

943 696 856.

Eskaera handia dela eta,

etxebizitza, bakarkako etxeak,

baserriak eta nekazal eta

hirigintzarako lursailak behar dira,

alokairuan edo salmentan. Itxaron

zerrenda dugu.

LEITZA ▶ XXV. ESKULANGINTZA ERAKUSKETA

Artisauen trebeziaren erakusleiho irekia

Era askotako langintzak eta gaiak izan dira asteburuan, ikusle askorekin; euriagatik izan ezik, giro ederra izan da

JAIONE ASTIBIA

Igandean izan zen XXV. Eskulangintza Erakusketa eta urteroko moduan, Kultur Asteko ospakizunik arrakastasuen izaki, jende endena ibili zen herriko plazan, nahiz bertakoak, nahiz kanpokoak. Eguerdia arte eguraldiak eutsi bazion ere, arratsaldeko lehen orduetan eraso ziolarik, erakusketa gehiena «Karrapera bildu behar» izan zuten eta «bete samar gelditu da», zioten antolatalaiek.

Edozein moduz, bazen zerikusia eta eltxitxuak zertan xahutu ere bai. Eskulangile gehienak bertan lanean aritu ziren, begira zeudenen galderak erantzunez, beren lanbideaz hainbat argibide emanaz. Saldu baino, beren «lanak erakusteko» baliatzen dituzte horrelako aukerak: «Ohiko saltokietan ikusten ez diren gauzak dira, erakusten ditugunak eta jendeak informazioa jaso eta gero deitzen digu», zioen tailagile batek. Baina, xaboi, ukendu, jostailu, ezti, saski, oinetak

ko eta beste horrelako hainbestetan, erraza da jendeak «bere gutzi tentaldiak» asetzeta. Atzokoan, iaiztik itxaroten egonda, sabelari «goxaldia» eman zionik ere izan zen, talo beroa janez.

GAUR ▶

Gaia. Sumatra, Laos eta Brasil bizikletan proiektioa.

Emalea. Haitzol Olaitz.

Ordua. 20:00.

Tokia. Zinema.



Euskal jantziak. Debako jostun hauek, soinean ez ezik, erakusteko ere arropa dotoreak zeuzkaten ikusgai: jantzien kolore eta diseiuz gain, apaingarri gisa egindako hainbat puntukada ikustekoak ziren. Euskal puntua egiten, makina bati erakutsi zien, Gloriak. JAIONE ASTIBIA



Saskigintza. Gaztainondo-zumitzekin egindakoak, tamaina, itxura eta erabilpen askotako saskiak izan ziren, igandean gehien saldu zirenak: egurra etxeratzeko, ontto biltzeko, apaingarri gisa... J. A.



Zura. Olariaga ibartarrak, lizar buruekin, enborrekin egindako zurezko apaingarriak ikaragarri bitxiak izan ziren. Erakusgai jarri zuten miztor-kabia ere bai. J. ASTIBIA



Erlezaintza. Azkaindik etorri zen, 200 erlauntz inguru dituen erlezaina, ezti mota askorekin. Egun guztian zehar hainbat azalpen eman zituen. Atentzio handiena, agian, erakusgarritako jarrita zuen erle-abaraskak eragin zuen bisitarien artean. J. ASTIBIA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai, ikusteko modukoa, bista ederrak.

Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Berokuntzarekin.

Egoera onean.

Ataun. San Martin. 2 logela.

Berritzeko. 75.125 euro !!

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. 6 etxe abikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Ikaztegieta. Etxe abikia salgai. Lorategi ekuzkitsuarekin.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa !!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai.

Ikusgarria !!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat

etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntza.

Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Nagusia. Pisu polita 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin. Berokuntzarekin. Egoera oso ona. Gazteentzat egokia!!!

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza berritzeko, igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua).

Estreintzeko, guztiz berritua izan

ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

Ikusteko modukoa !!!

Tolosa. Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behian: garajea, komuna eta txokoa.

Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto !!

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Egoera bikaina.

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m²-ko bi etxebizitza bikain. Estreintzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailu eta berokuntzarekin !!!

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. 124 m²-ko etxebizitza garajearekin.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxeondo. Pisu garajearekin. Pisu 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajea 50 m²-koa, karabanentzat egokia.

Villabona. Kale berria. 34 m²-ko garaje itxia salmentan.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ikaztegieta. Festa batzordearen bigarren bilera 20:00etan liburategian.

Larraul. Eriz magoaren saioa 18:30ean ostatuan.

Tolosa. Hirukideko LHko 6. mailako ikasleen gurasoekin bilera DBH etapa berria aurkezteko 18:30ean Eskolapioetako aretoan.

Tolosa. Aste Berdearen barruan, Eskola Agenda 21 ikasleen egunkariaren argitalpena.

Tolosa. Udal Haur Eskolan matrikula zabalik dago ostirala bitarte. Argibideak: Euskara eta Hezkuntza Zerbitzua (plaza Zaharra 6-B, 3. pisua, 3.2.atea) edo 943 69 74 53 edo 943 65 44 66 telefonoetan.

Tolosa. Udal Musika Eskolan aurrematrikula epea 10:00etatik 13:00etara.

Tolosa. Sanjoanetan egingo diren batel estropadetan parte hartu nahi duten herriak, elkarteak, taldeak... izena ematera animatzen ditu Tolosaldeko Arraun Klubak Zerkausiko instalazioetan iluntzetan. Gaur da azken eguna.

Tolosa. XVII. San Joan Areto Futbol Txapelketan izen-ematea: Shanti Kirolak (943 65 34 24).

Villabona. Pasaiaiko enboskadaz hitzaldia emango dute Gaztebexen 19:00etan, I. urteurreneko ekitaldiekin amaitzeko.

ZINEMA

Tolosa. *El reino de los cielos.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren 95. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. M.J. Iraola 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre (107.5 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: 11:30ean Bai Euskarari taldea; Gure Txokoa elkarteko Iñaki Garmendia; 12:00etan herri kirolak Joxangel Garmendiarekin; 12:30ean Ernioaldeko udaltaldea 21; Aste Berdea; azoka Pablo Alberdirekin, agenda, lehiaketa...
19:00-21:00. Errepikapena.
22:00. Street Noise musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Tabakorik gabe, hobe

TOLOSALDEA ▶ Tabakorik Gabeko Munduko Eguna da gaur; zortzi segundotik behin heriotz bat eragiten du tabakismoak



Tabakoaren keak erretzaileengan eta ez erretzaileengan kalte ugari sortzen du. NOELIA LATABURU

JOXEMI SAIZAR

Tabakorik Gabeko Munduko Eguna da gaur, Osasunerako Mundu Era-kundeak antolatuta. Aurten osasungintzako langileei zuzendua da bereziki «sozialki eredu izan behar dutelako, hezitzaileak bezala».

«Emakume» baino gizon erre-

tzaile gehiago dago oraindik, beranduago hasi zirelako emakumeak erretzen, aurreko mendeko 60. hamarkadan. Hala ere erretzen hasten diren artean emakumeak gehiago dira», azaldu dio HITZARI Maria del Mar del Castilok, Asuncion klinikako alergologoa eta tabakoa uzteko unitateko aditua. Gero eta gazteago hasten

direla erretzen esan du, 13 urterekin. «Gero eta erosteko ahalmen handiagoa izan, erretzaile gehiago izaten dira». Gurasoak erretzaile izateak ere eragiten omen du.

Osakidetzako lehen arreta zerbitzuetan tabakoak sortzen dituen kalteez eta tabakorik gabe bizitzearen onurez hasi dira informatzen.

Biriketako minbizia, EPOC —biriketako gaixotasun obstruktibo kronikoa—, arazo kardiobaskularrak, azala, laringe, aho eta maskuri minbiziak, antzutasuna, gizonen inpotentzia, ilea erortzea, kataraktak, entzumena galtzea, osteoporosia, ultzera, psoriasis, azala zahartzea... dira tabakoaren eraginez sortzen diren gaixotasunetako batzuk. Tabakismoak zortzi segundotik behin heriotz bat eragiten omen du. Tabakoaren kearen 40 osagai baino gehiagok minbizia sortzen dute. Ez erretzeak berriz, bizitza luzatzen du, itxura fisiko hobetu, menpekotasun bat kentzen du eta inor ez du kalte-tzen.

«Tabako paketeetan jartzen dituzten eskelek ez dute ia eraginik erretzen uzteko, baina ezer ez jartzea baino hobe da», dio Del Castilok eta datorren urtearen hasieratik lantokietan, tabernetan eta jatetxeetan erretzea debekatuko duen legeak «zurrara handia» sortuko duela uste du. «Lege horrek erretzaile ez diren babestuko ditu, orain erasotak sentitzen direlako. Besteekiko errespetoa behar da», azaldu du sendagileak.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Jon Gallego (Tolosa).
Atzo 9 urte.
Etbekoen partetik.

ZORIONAK

Pello eta Itziar (Villabona). Zorionak zuen zilarrezko etzeietan Herrialdeko familiaren partetik.

HITZA,
zorion agurren
tarteak

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5. behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!